

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Negozio eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da.

Enpresa batek aliantzak sor ditzake beste enpresa batzuekin hainbat arrazoi direla medio: negozio eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko adibidez. Gure kasuan baliabideak eskuratzeko egingo ditugu erlazioak.

Hainbat enpresa eta Antiguoko dendeekin arituko gara elkarlanean erosketak egin eta banatzen ditugun produktuak ahalik eta kalitate onenekoak izan daitezzen.

Hasteko Goenaga Esnekiak enpresak ekoiztu eta banatzen dituen produktuak; Agour etxeke gazta, iogur naturalak (gaingabetua eta esne osokoak) eta nata krema. Enpresa honekin elkarlanean aritzearen arrazoi nagusiak hurrengoak dira: Donostian bertan kokatua dago, beraien behien esnearekin ekoizten dituzte produktuak eta prozesu guztia kontrolatzen dutenez konfiantza hania ematen duten produktuak dira. Hauek guri denda bati salduko lieketen prezioan salduko genizkiguke produktuak, horrela guk dendek saltzen dituzten prezioan saldu ditzazkegu, horrela irabaziak sortuz.

Jarraitzeko, Donostiako Antiguoko auzoko Matia kalean kokatua dagoen fruta denda batetik eskuratuko ditugu gure bezeroak eskatzen dizkiguten fruta eta barazki guztiak.

Horretaz gain, haragia Antiguoko auzoko harategian erosiko dugu, kalitatea ahalik eta altuena izan dadin.

Bukatzeko, arraina arraindegitik erosiko dugu. Modu honetara gure bezeroek arrain ahalik eta freskoena eskuratzea dugu helburu.

Harategia, arraindegia eta fruta dendaren izenak gure bizikletak eramango duen karroan eta produktuen rebistetan agertuko dira. Guk propaganda moduko bat eta erosketa asko egingo dizkiegunez, beraien erosketa bakoitzeko %5eko deskontua egingo digute. Horrela guk erosketa bakoitzeko %5eko irabaziak edukiko genituzke.